

## **BI MILA ETA HAMABOSTEKO APIRILAREN HOGEITA ZORTZIAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.**

Arrietan 2015eko apirilaren hogeita zortzian, 20:00etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Angel M<sup>a</sup> Acillona Martínez alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Aitzbea Yarto Goiri  
Aitziber Ibinarriaga Delgado  
Jose Jesus Iturbe Oñartetxebarria  
Eduardo Saez Rementeria  
Lorenzo Ortiz Guerra  
Beñat Barainka Enzunza

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

### **I.- BI MILA ETA HAMABOSTEKO OTSAILAREN HOGEITA SEIAN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.**

2015eko otsailaren hogeita seiko bilkuraren Aktaren zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

### **II.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMOTEA.**

Alkate Jaunak Alkate Dekretuen berri emon dau. Honako hau da edukia:

#### **“Mediku etxearen estalkiaren konponketa” obraren adjudikazioa.**

“Mediku etxearen estalkiaren konponketa” obra Azkayo S.L. eraikuntzak enpresari adjudikatu zaio.

#### **Aitor Cenigaonaindia Isasik aurkeztutako obra amaieraren lizentzia eskaera.**

Goiri 32 auzoko etxebizitzaren obra amaiera lizentzia emon zaio Aitor Cenigaonaindia Isasiri.

#### **Rosa M<sup>a</sup> Elorriaga Atelak nitxoa alokatzeko aurkeztutako eskaria.**

Hilerriko 95 B zenbakidun nitxoa alokatu da Maria Jesus Ateka Lopez bertan ehorzteko.

#### **Euskara teknikariaren zerbitzuak kontratatzeko adjudikazioa.**

Labayru Ikastegiaren zerbitzuak kontratatu dira 2015eko martxoaren batetik maiatzaren 31ra bitartean.

#### **Miren Sope Ojinaga Goirik nitxoa alokatzeko aurkeztutako eskaria.**

Hilerriko 88 B zenbakidun nitxoa alokatu da Enrique Ojinaga Goitia bertan ehorzteko.

#### **Udal artxiboaren mantenimenduaren fakturaren onarpena.**

VLAI, S. L.enpresaren faktura onartu da, udal artxiboaren mantenimenduari dagokiona.

**Canon fotokopiagailuaren alokairuaren kontratuaren adjudikazioa.**

Canon IR C3580 fotokopiagailua “renting” bidez erosteko kontratua onartu da.

**Zerbitzu anitzetako langilearen lanaldia ordezkatzeko aldi baterako kontratua.**

Pedro Maria Zugazaga Uribarri kontratatu da Zerbitzu anitzetako langilearen baja aldia ordezkatzeko.

**Animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia.**

Animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia eman zaio Lander Moreno Altonagari.

**Animalia arriskutsuak udal Erregistroan inskribatzea**

“Zigor” animalia arriskutsuen Erregistroan inskribatu da.

**“Arrietako mediku kontsultaren estalkia konpontzeko” obraren Segurtasun eta Osasun Planaren onarpena.**

“Arrietako mediku kontsultaren estalkia konpontzeko” obraren Segurtasun eta Osasun Plana onartu da.

**Sollubeko 6 zenbakidun transmisio etxolaren alokairua.**

Sollubeko 6 zenbakidun transmisio etxolaren alokairu kontratua onartu zaio, lau urterako, Nexis informazio Teknologia enpresari.

**III.-MUNGIALDEKO GORABIDE ELKARTEAK AURKEZTUTAKO DIRULAGUNTZA ESKARIA.**

Mungialdeko Gorabide Elkarteak, 2015eko ekitaldian, elbarrituentzat jarduerak egiteko asmoz, dirulaguntza eskaria aurkeztu du. Udalbatzak, aho batez, seirehun (600) euroko dirulaguntza ematea erabaki du.

**IV.- 2012ko ABENDUKO APARTEKO ORDAINSARIAREN ZATI BAT ORDAINTZEKO ETA GAINERAKO ZENBATEKOAREN AURRERAKINA EMATEKO ERABAKIAREN EREDUA.**

Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko Neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2. Artikuluaren ondorioz, udal-langileei ez zitzaien 2012ko abenduko aparteko ordainsaria ordaindu, etorkizunean erretiro-kontingentzia estaltzen duten pentsio-plan edo aseguru kolektiboko kontratuetarako erabiltzeko asmoz, Aurrekontuen Egonkortasunari eta Jasangarritasun Finantzarioari buruzko 2/2012 Lege Organikoan xedatutakoa eta aurrekontuei buruzko kasuan kasuko legeetan zehaztutako baldintzak eta irismena kontuan hartuta.

Ahal dela, aparteko ordainsari hori ez kobratzean erosketa-ahalmen gutxiago eduki zuten udal-langileen diruzaintza-premiak arintzeko asmoz, harik eta horretarako legezko beste irtenbide bat aurkitu arte, 2013ko martxoaren hamaseian, Arrietako Udalak ezohiko prozedura onartu zuen 2013ko aparteko ordainsarien aurrerakinen sistema eskatzeko. Aurrerakinen sistema hori 2014ra arte luzatu da irizpide berberaz.

2015. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legeko hamabigarren xedapen gehigarrian, 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren zati bat

berreskuratzeko aukera xedatzen da epealdi horretarako. Beraz, administrazio publikoek behar besteko ahalmena izango dute, aparteko ordainsari hori jaso ez duten langileei horren 44 sorrarazpen-egunen zati proportzionala ordaintzeko edo osorik sorrarazi ez dutenei kasuan kasuko zati proportzionala ordaintzeko. Administrazio publikoek neurri hori onartzeko, ezinbestekoa izango da Aurrekontuen Egonkortasunari eta Jasangarritasun Finantzarioari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan zehaztutako irizpideak eta prozedurak betetzea, eta Arrietako Udalak hori guztiori betetzen du.

2015. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege horretan, ez da ezer aipatzen ordaindu ez zen aparteko ordainsari horren gainerako zenbatekoei buruz, ezta uztaillaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2.4. artikuluan zehaztutako konpromisoari buruz ere. Bertan aurreikusitakoaren arabera, erretiro, kontingentzia estaltzen duten pentsio-plan edo aseguru kolektiboko kontratuetarako ekarpena egin behar da zenbateko horien bitartez. Dena dela, ezarri egiten da 2015ean ordaindutako zenbatekoek aurreikuspen horien irismena gutxituko dutela aurrekontuei buruzko etorkizuneko legeetan baldintza horietan zehazten direnean.

Izan ere, modu formalean azaltzen ez bada ere, 2015. Urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legeko hamabigarren xedapen gehigarrian, Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko Neurriei buruzko uztaillaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2.4. artikulua aldatzen da erabat. Hain zuzen ere, 2. 4. Artikulu horretan, ikusi ahal izan dugun bezala, aparteko ordainsaria kentzeagatik ez ordaindutako zenbateko horien “helmuga eksklusiboa” ezartzen zen, honako hauxe adierazten zelako bertan: “etorkizuneko ekitaldietan pentsio-planetarako ekarpenak egiteko erabiliko dira aurrekontuei buruzko kasuan kasuko legeetan zehaztutako baldintzak eta irismena kontuan hartuta”. Aurrekontuei buruzko legeetara birbideratzea argia zen, baina argia ere bazen zenbateko horiek eskudirutan itzuli behar ez zirela eta pentsio-planetarako ekarpenak egiteko erabili behar zirela. Hala ere, agerikoa denez, estatuko aurrekontuei buruzko azken legeetan euren gaineko aldi baterako debekua kendu arte itxaron behar zen (abenduaren 26ko 36/2013 Legeko 20.3. artikuluan gaur egun zehaztutako baldintzak kontuan hartuta).

36/2014 Legeko hamabigarren xedapen gehigarriko aukerak funtsean aldatzen ditu ordura arte indarrean zeuden arauzko agindu horiek, teleologiaren aldetik ez delako batere zentzuzkoa uztaillaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2.4. artikuluan xedatutakoa bezalako araua indarrean dagoela kontuan hartzea 2015. urterako Aurrekontuei buruzko Legean bere eduki materiala bete-betean isilarazi denean. Beraz, argi eta garbi dago azkenean aurrekontuen arloko legegileak behar beteko erabakia hartu duela bere garaian kontu publikoak egokitzeko eta aurrekontuen egonkortasunaren helburuak betetzeko asmoz kendutako aparteko ordainsariaren eskudirutako konpentsazio ekonomikorako sistema ezartzeko. Zerga-salbuespenaren fasea gainditutakoan, salbuespeneko araua lasaitu eta berriro ere zehaztu da.

Hori dela eta, arauzko agindu horiek kontuan hartuta, ageri-agerikoa da Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko gaur egungo Legeak uztaillaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2.4. artikuluan zehaztutako arauketa aldatu duela eta tokiko erakundeek atxikitako zenbatekoen itzulketaren onarpenerako baldintzak eta moduak zehazteko dituzten eraketa-marjinak arau hartan berariaz aurreikusitakoak baino zabalagoak direla, xedapen horretako lehenengo “in fine” idatz-zatian egindako berariazko igorpenagatik printzipio orokorrak errespetatzen badira ere.

Aurrean esandakoaren arabera, honako Akordio hau hartzen da:

## XEDAPENAK

### **2012ko ABENDUKO APARTEKO ORDAINSARIAREN ZATI BATEN ITZULKETA ETA GAINERAKO ZENBATEKOEN AURRERAKINA.**

#### **1. 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren zati baten itzulketa**

Udalbatzak, 2013ko martxoaren hamaseian hartutako erabakiaren bidez onartutako I. kapituluko kreditua ez erabiltzeko adierazpenaren espedientean azaldutako zerrendaren arabera, Arrietako Udalak 2012ko abenduko aparteko ordainsaria jaso ez zuten udal-langile aktiboei ordainduko die 44 sorrarazpen-egunen zati proportzionala (%24,04). 2012ko abenduko aparteko ordainsari osoa eta gehigarria aitortu ez denean, kasuan kasuko egunen araberako zati proportzionala baino ez da ordainduko.

Zenbateko hori 2015eko lehenengo sei hilabeteren barruan ordainduko da 2015. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeko hamabigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintzen arabera. Horren ondorioz, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2. Artikuluko 4. Idatz-zatian zehaztutako aurreikuspenen irismena gutxituko da.

Ordainketaren datan langileak zerbitzu aktiboan edo antzekoan ez badaude edo langile publikoak ez badira eta 2012ko abenduko aparteko ordainsaria jaso ez badute, Arrietako Udalak artikulua honetan aipatutako zenbatekoak ordainduko dizkio, Alkateari eskaera egin ondoren. Itun hau indarrean sartzan denean kasuan kasuko langilea hilda badago, Zuzenbide Zibilaren arabeko oinordekoek egin beharko dute eskaera.

**Langileek 2015eko aparteko ordainsarien aurrerakina eskatu dutenean**, artikulua honetan xedatutako 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren zati bat itzultzean, zenbateko hori zuzenean ezarriko da 2015eko ekaineko aparteko ordainsariaren aurrerakinaren ondorioz sortutako zorraren amortizazioan. Horrela, bada, sorrarazpenaren hilabete hori iristean, amortizatu gabeko aurrerakinaren zatia baino ez dute itzuli beharko. Edonola ere, hurrengo artikuluan xedatutakoa hartu beharko da kontuan, 2012ko abenduko aparteko ordainsarian atxikitako eta zordundutako zenbatekoak aurreratu zaizkienean.

#### **2. Itzuli ez diren 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren gainerako zenbatekoen aurrerakina.**

2012ko abenduko aparteko ordainsariaren gainerako zenbatekoak sorrarazi dituzten udal-langileen aldeko kreditutzat hartuko dira. Arrietako Udalak berak atxikiko du, eta ezin izango da udaleko aurrekontuetarako erabili 2013ko martxoaren hamaseian hartutako erabakiaz. Udal-langileek atxikitako zenbatekoen aurrerakina eskatu ahal izango dute, baldintza hauen arabera:

- Interesdunek eskatuta, 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren %75,96 (100-24,04) honako hauexei aurreratuko zaie 2015eko lehenengo hiruhilekoan (edo horretarako zehaztutako datan): sorrarazi duten karrerako funtzionarioak eta lan-kontratadun aldi baterako langileak, bitarteko funtzionarioak eta behin-behineko langileak, betiere aurrerakinaren itzulketaren datara iristen den amaiera-datadun kontraturik edo izendapenik badute.
- Aurrerakin hori 2015eko abenduaren amaiera baino lehen utzi beharko da. Nolanahi ere, baliteke epealdi hori luzatzea.
- Dena dela, 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren etorkizuneko itzulketak kredituen aurrerakinak jaso dituzten udal-langileen zorra amortizatzeko erabiliko dira, betiere itzulketa horiek egitean zor hori bizirik badago.

- Orain erabiliko den aurrerakin horrek ez du inolako interesik sortuko, eta legearen arabera gauzazko ordainsarietarako zehaztutako zerga-tratamendua izango du.
- Zenbateko horiek aurreratutakoan, 2012ko aparteko ordainsaria osorik itzuli baino lehen langilearekin ezarritako lan-harremana amaitzen denean, haien itzulketa ofizioz egotzi ahal izango zaie jaso gabe dauden ordainsariei. Horretarako, konpentsatu egingo dira. Sistema hori ezartzerik ez badago edo nahikoa ez bada, langileak ordaindu gabe dagoen zenbatekoa sartu beharko du udal-kutxan. Zenbateko hori, gainera, ordenamendu juridikoan aurreikusitako edozein sistemaren bidez eskatu ahal izango da. Edonola ere, etorkizuneko arauen arabera horretarako ahalmena dagoenean, zenbateko hori berriro itzuli ahal izango zaio kasuan kasuko langileari.
- Udal-langileak eskatu ez duelako edo artikulu honetan baimen horretarako zehaztutako betekizunak betetzen ez dituelako aurrerakina ematen ez denean, 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren gainerako zenbatekoen etorkizuneko itzulketak zuzenean ordainduko zaizkie onuradunei, aurreko artikuluan aurreikusitako antzeko formularen bitartez.
- **Udal-langileek 2015eko aparteko ordainsarien aurrerakina eskatu dutenean,** artikulu honetan zehaztutako 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren zenbateko atxikien konturako aurrerakina indarrean duten aurrerakinaren berriztapenaren bidez gauzatu da. Izan ere, amortizatu eta artikulu honetan adierazitako aurrerakinaren bidez ordezkatu litzateke. Hartara, 2015eko ekainean, ez dute jatorrizko aurrerakina itzuli beharko.

### **3. Banakako eskabidea**

Itun honetan xedatutakoari heltzeko, udaleko langileek banakako eskabidea aurkeztu beharko dute itun honen amaieran moduan atxikitako eskabide-orriaren bitartez.

#### **Azken xedapena**

Indarrik gabe geratzen da 2015eko ekitaldirako aparteko ordainsariak aurreratzeko prozedura.

## **V.-ARRIETAKO UDALEKO 2014-2015 PLAN FINANTZAR EKONOMIKOAREN EZEZTAPENA.**

Arrietako Udaleko 2014-2015 Plan Finantzar ekonomikoaren Plana ikusita, bere beharra egin eta gastuaren egoera bete duela, Udalbatzak, aho batez, efekturik gabe uztea erabaki du eta akordio hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Sailera bidaltzea.

## **VI.- SOLLUBEKO 4 ZENBAKIDUN TRANSMIZIO ETXOLAREN AKURAPENA.**

Telebilbao S.L. enpresarekin sinatutako Sollubeko 4 zenbakidun etxolan TDTaren estaldura hobetzeko asmoz, igorgailu bat jartzeko alokairuaren kontratua amaitu dela ikusita, Udalbatzak, aho batez, Emilio Rodriguez Rodriguez eta Angel M<sup>a</sup> Argote Batallerrek ordezkaturako Telebilbao S. L. enpresari Sollubeko etxola alokatzea erabaki du 4 urterako, 2015eko ekainaren batetik 2019ko maiatzaren 31ra bitartean. Zenbatekoa 1.500, 00 €/ urteko izango da. (B.E.Z.a sartu gabe), K.P.I. gehitu gabe. Udalbatzak, oinarriak eta kontratua onartzea ere erabaki du eta Alkate Andreari kontratua sinatzeko ahalmena ematea..

## **VII.- 2015eko TOKI ETA ERKIDEGOKO HAUTESKUNDE MAHAIA SORTZEKO ZOZKETA.**

2015eko maiatzaren 24an egingo diren Toki eta Erkidegoko hauteskunde mahaia sortzeko zozketa publikoa egin da. Honako hau da emaitza:

### **MAHAIBURUA**

TITULARRA.- Lucia Agirre Lopez.

1.go ORDEZKOA.- Andoni Orbe Gil.

2. ORDEZKOA.- Olatz Otazua Ordoñez.

### **1.go BOKALA**

TITULARRA.- Aitor Arriaga Gandia.

1.go ORDEZKOA.- Jone Juiz Ruiz.

2. ORDEZKOA.- Francisco Javier Ibarzabal Rebollo.

### **2. BOKALA**

TITULARRA.- Miguel Fouces Vallejo.

1.go ORDEZKOA.- Leyre Benedicto Garcia.

2. ORDEZKOA.- Miren Edurne Torrealdei Erezuma.

## **VIII.- NORBERAK LEKARKEENA.**

Ez dago galderarik.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo du bilkura bederatzietan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko